

ERMITTIAKO PLAN ZUZENTZAILEA

PLAN DIRECTOR DE ERMITTIA

SUSTATZAILEA: Debako Udala

TALDE IDAZLEA: Debegesa

DATA: 2022ko abendua

Financiado por:



A. TXOSTENA:

- I. Aurrekariak, lantaldea eta parte-hartzea.
- II. Irizpideak eta helburuak.
- III. Analisia eta diagnostikoa.
- IV. Hirigintza justifikazioa.
- V. Proposamen orokorra.
- VI. Jarduketa-plana eta aurrekontu zenbatsia.

B. MEMORIA:

- I. Antecedentes, equipo de trabajo y participación.
- II. Criterios y objetivos.
- III. Análisis y diagnóstico.
- IV. Justificación urbanística.
- V. Propuesta general.
- VI. Plan de actuación y presupuesto estimado.

C. ERANSKINAK / ANEJOS:

- Eranskina I: Parte-hartzea /Participación:
 - Metodología
 - Bileren aktak eta eranskinak (aurkezpenak) /Actas de las reuniones y anejos(presentaciones):
- Eranskina II: Informe de reconocimiento y espeleometría de Ermittia

E. ERANSKINAK / ANEJOS:

- Eranskina I: **Parte-hartzea** /Participación:
 - Metodologia** /Metodología
 - Bileren aktak eta eranskinak (aurkezpenak)** /Actas de las reuniones y anejos(presentaciones)
- Eranskina II: Informe de reconocimiento y espeleometría de Ermittia

ERANSKINA I PARTE-HARTZEA / ANEJO I PARTICIPACION:

-Metodologia /Metodología

-Bileren aktak eta eranskinak (aurkezpenak) /Actas de las reuniones y anejos(presentaciones):

-2022-06-21: Bilera eta bisita Arrikruzteko kobazuloan (Oñati) / Reunión y visita a la cueva de Arrikruz (Oñati)

-2022-06-28: 1. lantaldearen bilera / 1ª Reunión Equipo de trabajo

-2022-07-18: 2. lantaldearen bilera / 2ª Reunión Equipo de trabajo

-2022-09-20: 3. lantaldearen bilera / 3ª Reunión Equipo de trabajo

-2022-10-21: Bilera Gipuzkoako Foru Aldundian (Donostia) / Reunión en la Diputación Foral de Gipuzkoa (Donostia)

-2022-11-09: 4. lantaldearen bilera / 4ª Reunión Equipo de trabajo

METODOLOGÍA:

Desde el Ayuntamiento de Deba y Debegesa, como promotor y equipo redactor respectivamente, se propone la redacción del Plan Director de Ermitia con la participación de todos los agentes implicados, hecho que deberá garantizar su desarrollo y puesta en marcha.

Desde el principio del desarrollo de la propuesta, dicha participación se ha concretado en un equipo de trabajo que se ha reunido periódicamente y otro consultivo, para poder resolver cuestiones concretas, que han consensuado la propuesta objeto del plan.

En el equipo de trabajo han participado representantes de las siguientes entidades:

- Ayuntamiento de Deba: Equipo de Gobierno, Depto. de Turismo y Depto. de Urbanismo.
- Geogarapen.
- Dirección General de Cultura del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- EHU-UPV
- Debegesa: Depto. de Turismo y Depto. de Urbanismo como equipo redactor.

En el equipo consultivo han participado representantes de los siguientes agentes implicados bien, mediante la celebración de reuniones, bien, mediante la resolución de consulta concretas:

- Diputación Foral de Gipuzkoa: Dirección de Medio ambiente y Servicio de Flora y Fauna de la Dirección de Montes y Medio Natural.
- Grupo de espeleología Felix Ugarte.
- Propiedad de la cantera.

En total han sido 19 el número de personas que han participado en ambos equipos con la celebración de 6 reuniones. Cuatro reuniones han sido del equipo de trabajo, una reunión del equipo redactor con la dirección de Medio Ambiente y el servicio de Flora y Fauna de la Diputación Foral de Gipuzkoa y otra reunión del equipo redactor, representantes del Ayuntamiento y Geogarapen con un representante de la propiedad de la cantera.

Además, antes del inicio del plan (2022-06-21), representantes del equipo de trabajo han realizado una visita con reunión previa a la cueva de Arrikruz (Oñati) con los promotores de la visita e instalaciones de dicha cueva. El objetivo ha sido conocer de primera mano el desarrollo de dicho proyecto desde su inicio, dificultades, lecciones aprendidas y su resultado.

Asimismo, en julio del 2022, de modo previo a la reunión del equipo de trabajo, se presenta en el ayuntamiento, tanto a representantes políticos como técnicos, así como a otros agentes, el proyecto Valle de la Prehistoria-Historiaurreko Bailara-HAB, comentando también sobre el desarrollo del presente plan.

El calendario de actuaciones propuesto ha sido concretado tras la última reunión con representantes municipales.

ACTAS DE LAS REUNIONES Y ANEJOS(PRESENTACIONES):

A continuación se recogen las actas de las reuniones y sus presentaciones como anejos.

GAI ZERRENDA - ORDEN DEL DIA:

- ✓ Arrikutzen proiektuaren diseinuan parte-hartzaileak
- ✓ Ekimena martxan ipintzeko gako-nagusiak

<u>DEIALDIA/CONVOCATORIA</u>	<u>KONBOKATURIKO KIDEAK/MIEMBROS CONVOCADOS</u>	<u>ETORRIAK - ASISTE</u>	<u>EZ ETORRIAK / AUSENTE</u>
<u>DATA/FECHA:</u> 2021-03-03	1. DEBEGESA – Turismo (Aitziber, Ane)	X	
<u>HASIERA ORDUA/HORA INICIO:</u> 10:00	2. DEBEGESA – Hirigintza (Esther, Eider)	X	
<u>AMAIERA/FINAL:</u> 14:25	3. Debako Udala – Jasone Galdona	X	
<u>TOKIA/LUGAR:</u> Arrikutzeko kobak	4. Debako Udala – Gilen Garcia	X	
	5. Oñatiko Udala – Ikerne Altube	X	

LANDUTAKO GAIEN LABURPENA/ RESUMEN DE LOS TEMAS TRATADOS:

Bileraren hasieran Ermittiako Plan Zuzentzailearen nondik norakoak azaltzen zaizkio Iknerri:

- Debako proiektuaren azalpena
 - Debako Udala eta Geoparkearen arteko elkarlana
 - Prehistoria Deba bailaran balioan jartzea da proiektuaren helburua
 - Kobazulo asko Deba inguruan: Praileaitz, Landatxo, Ermitia...
 - 2020an aurreproiektua prehistoria balioan ipintzeko, 5-6 guneren proposamena
 - Irisgarriena den kobazuloa Ermitia da – hau garatzeko aukerak aztertzen
 - Proiektuaren helburua – barrualdea interpretatzea prehistoriarekin lotzeko
- Proiektuaren diseinurako eta martxan jartzeko gako nagusiak
 - Erronka handiena bertako espeleologo eta biztanleria. Aranzadik egin zuen proiektua, herritar askok ez zuten ondo hartu. Jarraipen batzorde bat sortzea erabaki zen.
 - Geoparkean espeleologoekin eta EHUrekin lankidetzat egin da hasieratik.
 - Jarraipen batzordea: alderdi politiko guztiak, arkeologoak, historialariak, turismo teknikaria, espeleologoak. Egin behar ziren lanak eta ikerketak erabakitzeke ardura zuten. Proiektu jasangarria eta inguruan inpaktu gutxikoa sortzea zen helburua.
 - Ikerketak: klimatikoak (temperatura eta hezetasuna), arkeologia indusketak, radon ikerketa (radioaktibitatea eta CO2a neurtzeko, kondentsazioa kontutan hartuta. Legeak eskatzen du), flora eta faunaren ikerketa bisitari zentrua eta aparkalekua non jarri erabakitzeke, koba aztertu sarrerak eta ibilbidea zehazteko (topografia), materialaren azterketa.
 - Bisita nolakoa izango zen zehaztu: elementu geologikoak, elementu arkeologikoak, inguruko historia eta

- kondairak. Hezitzeko gunea sortu, kobaren balioa ezagutzera emateko.
- Espazioa nolakoa den eta zer kontatu nahi den, zenbat jende hartzeko aukera duen zehaztu. Taldeak gehienez 25 pertsonakoak dira.
 - Ibilbidea: barruan 8 interes puntu. Iparraldeko empresa batek egin zuen. Museistika LKS enpresak egin zuen. Proiektua neurrira eginda, bertako ezaugarriak kontutan hartuta. Luzeagoa egitea aurreikusi zen baina inpaktoa handiegia zenez azkenean mugatu egin zen.
 - Bisita: ordubete baino gehiagokoa ez, ez da jarraitzen. Frantziako koben esperientzia jarraituz.
 - Materiala: koba nolakoa den.
 - Argiteria kontutan izan behar da: berotasuna. Argitasun dinamikoa.
 - Pasarela instalatzeko HEURELEC empresa gomendatzen dute. Mantenimendua egiten dute.
 - Harreragunea Jarraipen Batzordean non jarri erabaki zuen. Harreragunearen diseinua geroago egin zen.
 - Harreragunea oso txikia da, inguruan inpaktu handirik ez izateko.
 - Finantziario gehiena Oñatiko Udaletik. GFAtik dirualguntzarik ez.
 - Bisitariak: 6000 inguru. Eskoletatik 1/3 gehienak aste barruan, beste guztiak bisitariak.
 - Arrikutzera iristen da Arantzazu ezagutzen ez duen jendea, Arrikutzek badu izaera propioa baliabide turistiko bezala.
 - Diskurtsoaren garapena: zer kontatu, eta timing-a : geldiuneak eta bakoitzean zer kontatu. Jende asko datorrenean bideo bat jartzen da. Diskurtso gabeko bat ere badago, azalpenak gida batek ematen ditu.
 - Bisitatzeke 3 modu: finkoa, dinamikoa gidari batekin, eta grabaketarekin talde handientzako.
 - Kontutan izateko: Timinga, zer kontatu nahi duzun, eta zein publiko daukazu
 - Espeleoturismo bisitak ere egiten dira: galerien interpretazioa. Galeria lehor baten, ohiko zirkuitotik kanpo.
 - Bisita zerbitzua: pliego bidez ateratzen da. Esplotatzeko sarrerak, bisita gidatuak, espeleoturismoa, tailerrak, etab.
 - Gai desberdinen inguruko bideoak: geologia, historia, arkeologia... taldeen arabera moldatzen da.
 - Talde handiak badira ere ordu eta erdian bisita egiteko aukera dago, taldea bitan zatituta.
 - Gastuak: argia da gastorik altuena.
 - Hezetasuna: ez dago kontrolatzeko modurik. Ez daukate arazorik.
 - Inbertsioaren erdia pasarelaren instalazioa izan zen, 500m distantzia handia delako. Proiektua konplikatu zen.
 - Sareak: EHUrekin lankidetzaz hasieran indusketak eta ikerketak egiteko.
 - Koben sarea: proiektua hasterakoan nondik hasi jakiteko sartu ziren. Kudeaketa nola egin, zein material erabili... zalantzak argitzeko.
 - Hitzarmena Euskal Herriko Kobakekin, promozioa egiteko.
 - Geoparkearekin hitzarmen bat egin nahi da geoturismoa bultzatzeko.
 - Irigarritasuna da Ermitiaki zailtasun handiena.
 - Gaur egungo sarrera irekitzeko "petardazo" batez baliatu ziren, ireki gabeko gune bat baitzen. Koba barneko hezetasun maila eta koba beraren mantenurako, sarrera honetan aurrekamara moduko bat sortzen dute. Hori dela-eta, koba barrura sartzeko 2 ate igaro behar dira. Kobazuloko gainontzeko irekidurak itxi egin zituzten.

Behin hau guztia azalduta, kobak bisitatu egiten dira.

Sinadura/Aprobado por:

GAI ZERRENDA - ORDEN DEL DIA:

- ✓ Ermittiako Plan Zuzentzailearen lehen urratsak
- ✓ Plan Zuzentzailearen parte-hartzaileen adostea
- ✓ Plan Zuzentzailearen helburuen identifikazioa

<u>DEIALDIA/CONVOCATORIA</u>	<u>KONBOKATURIKO KIDEAK/MIEMBROS CONVOCADOS</u>	<u>ETORRIAK - ASISTE</u>	<u>EZ ETORRIAK / AUSENTE</u>
<u>DATA/FECHA:</u> 2022-06-28	1. Aitziber Cortazar (DEBEGESA – Turismo)	X	
<u>HASIERA ORDUA/HORA INICIO:</u> 12:00	2. Ane Osoro (DEBEGESA – Turismo)	X	
<u>AMAIERA/FINAL:</u> 14:25	3. Esther Zarrabeitia (DEBEGESA – Hirigintza)	X	
<u>TOKIA/LUGAR:</u> Debako Udala	4. Eider Etxegarai (DEBEGESA – Hirigintza)	X	
	5. Gilen Garcia (Debako Udala – Alkatea)	X	
	6. Jasone Galdona (Debako Udala – Turismo)	X	
	7. Saioa Zuazubiskar (Debako Udala – Arkitekta)		X
	8. Leire Barriuso – (Geoparkea)	X	
	9. Asier Hilario – (Geoparkea)		X
	10. Mertxe Urteaga – (Gipuzkoako Foru Aldundia)	X	
	11. Xabier Peñalver (ARANZADI)		X
	12. Joxean Mugika (UPV)		X

LANDUTAKO GAIEN LABURPENA/ RESUMEN DE LOS TEMAS TRATADOS:

Bileraren hasieran hurrengo egunetan formulario bat bidaliko zaiela aipatzen da, xedea da bileran zehar sortutako eta planteatutako zalantzak idatziz erantzutea. Honi jarraiki, Estherrek prestatutako aurkezpena azaltzeari ekiten dio:

- Ermittiako Plan Zuzentzailearen jatorria
 - Aurrekarien azalpena: Karst eta Gizakia – Proyecto de musealización del Valle de la Prehistoria – Historia Aurreko Bailara (HAB)
- Lan taldearen eraketa
 - Plan Zuzentzaile honetako lan-taldeko kide bezala hurrengo elkarteak proposatzen dira, bakoitzak bere papera zein izango den azalduz:
 - Debako Udala: buru eta sustatzailea
 - Debegesa; proiektuaren talde- idazlea
 - Geoparkea: turismo alorraz gain, berme zientifikoa emango duena
 - Gipuzkoako Foru Aldundia:- kultura. Berme zientifikoa, zilegitasuna eta kultur araudiaren bermea

- Gainontzeko elkarteak : Aranzadi eta UPV berme zientifikoa– ezagutza akademikoa. Xabier Peñalverrek eta Joxean Mujika.
 - Jasonek Eusko Jaurlaritzaren etorrera eza justifikatzen du, hauekin izan dituen elkarrizketen ostean, Eusko Jaurlaritza, proiektuaren finantzazaila den aldetik ez du egokia ikusten bere burua lan taldearen parte izatea. Edonola, proiektuaren garatzen doan heinean EJrekin informazioa partekatzen joango gara.
- Faltan botatzen diren partaideak honako hauek dira: espeleologoak.
- Jarraian, kronograma aurkezten da eta hurrengo bilera datak adosten dira.
- Alkateak herritarrei ahalik eta lehen proiektuaren berri emateko beharra azpimarratzen du, egunkari-aldizkari bidez edo bestelako medioen bidez.
- Erabilitako aurkezpenean jasotako diagnostikoren inguruko ekarpenak:
 - ,Donejakue Bidearen Dekretua aintzat hartzeko gogorarazten du.
 - Praileaitz eta Ermitia ingurua jendearen erabilpena dela eta naturak sortzen dituen itzal eta babes-engatik nahiko ondo mantentzen dela azpimarratzen da.
 - Kobazuloaren barnealdeari dagokionez 40km-ko lurpeko-sarea duela komentatzen du Estherrek, baina Mertxek Ermitiakoa soilik ez dela dio, baizik eta Aixaren konplexura lotu ezker lor daitezkeela dimentsio horiek. Ermitia 1 eta Ermitia 2 gaur egun ez daudela lotuta dio. Gainera, Era berean, autopistaren obren ondorioz ondoratutako gunean zabor ugari pilatuta dagoela komentatzen da eta bertan zeozer egin ahal izateko, dena atera beharko litzatekeela. Aixaren konplexua izugarrikoa dela komentatzen du, oraindik topografia guztia atera gabe dutela eta espeleologia taldeak eremu guztia topografiatzen dabilatzatela.
 - Mertxeren ikuspuntutik Ermitia oso aztarnategi potentea da, orain dela 60-70 urte hartutako aztarnak oraindik testuingurutik kanpo daudela gordailuan, aztarna horiek jaso ziren metodoarekin ezin baita kontestu batean kokatu. Animalien aztarnategia oso-oso handia dela dio. Jarraian, bi zundaketa egin direla, erantzun oso baikorrek, eta estratigrafia nahiko ondo mantentzen dela. Horren harira, aztarnategiak aukera asko ematen dituela dio, ikerketak egiteko.
 - Leirek bi txosten gehiago daudela komentatzen du, bata, plano zehatzago batekin, eta bestea, espeleologoen egin duten planimetriarena. Ea pasa ahal dien galdetzen dio Estherrek, eta Leirek bidaliko dielakoan geratzen da.
 - Benchmarking ikerketa horren ostean Ermitiaren ezaugarriak aztertuta turistikoko balioa ipinitako kobazuloekin lehiatzeko erronka handia da. HAB ibilbide guztian ematen diguten informazioa eta gero, koba azken “kolofoi” moduan ikusten duela azaltzen du, non zerbait esperientziala planteatu beharko liratekeela azpimarratzen da.
 - Jasonek HAB ibilbidearen osagarri moduan ikusten duela komentatzen du, behin ibilbide guztian zehar historiaren berri ematen gaituztela, kobazuloan gizakia nola bizi zen erakutsi daitekeela. Artea beste koba batzuetan ikus daitekeela azaltzen du, baina posible ikusten duela jendea erakartzeko helburuarekin, Ermitiako koban arkeologoen lana balioan jartzea eta beraien ikerketak nola egiten diren “in situ” ikustea.
 - Produktua norentzako den galderari, Leirek Geoparkeko erabiltzaile antzerakoarentzako uste duela dio, non profil ezberdinetako jendea datorren. Multzo honen barruan bertako jendea ere ikusten duela. Honi jarraiki Gilenek bertako jendeak “grin”a sortu behar duela, maitatu behar duela, balioan jarri behar duela.... Beraz, norentzako galderari bertako jendearentzako eta bisitariarentzako bideratutako proposamena izan behar dela adosten da.

- Bigarren galderari dagokionez, zertarako den produktua, Estherrek, helburua konkretatze aldera, LAG/DOT-etan agertzen den “recreo extensivo”aren definizioa irakurtzen du, bileran dauden partaide guztiak kontzeptu hori jarraitzearekin ados daudela ulertzen da.
- Planaren helburuak zeintzuk diren definitze aldera, zenbait galdera planteatzen zaie bileraren parte hartzaileei:
 - Kobak HAB ibilbideari amaiera emango dio, eta hasiera baita ere? Bi aukerak ikusten dituztela aipatzen dute parte-hartzaileek. Horren harira, kobak beti erakargarriak izan direla komentatzen da. Era berean, baliteke bisitari batzuk ibilbidea egin eta haitzulora igotzea, beste batzuk soilik ibilbidea egingo dutela eta beste batzuk soilik haitzuloa ikusiko dutela.
 - Bisitagarria imajinatzen al dute? Guztiok ados agertzen dira koba bisitagarria izan daitekeen ikuspegiarekin. Zentzu horretan, Mertxek Ondarearen zabalkuntza helburua izanik, ez duela oztoporik jarriko dio.
 - Eremuak dituen “mugak/zailtasunak” komentatzen ditu Estherrek, oso harrera estua dagoela, igoyeraren inklinazioa nabarmena dela... bisitari-kopuruaren arabera Ermitiara sartzeko zailtasunak azpimarratzen ditu. Adostasuna dago bisitari talde txikiak beharko luketeela. Mertxek agian kobazuloaren sarrerako atea atzeratu daitekeela aipatzen du, aztertzeke gauza bat dela. Gilenek eta Jasonek balkoi-miradore moduko pasarela bat planteatu daitekeela diote. Gerturatutakoak Arrikruzteko kobak bezala ikusten ez duela azaltzen dute, beraien instalakuntza, argiteria eta pasarelarekin. Gilenek “kobazuloan” sartzearen fetitxeak berak erakar dezakeela dio. Eta kantera aipatutako “relato” horren barruan sartuko lukeela. Aitziberrek jarraian instalakuntza horiek behar dituzten espazioak-azpiegiturak kontuan hartu behar direla azaltzen du, instalakuntza gela baten beharra, adibidez.
 - Arrikruzten sarrera-ahoa irekitzeko egin zen “petardozoa” komentatzen da eta kasu honetarako baliagarria izan daitekeelakoan ideia elkar banatzen duela. Mertxek aztertu beharreko interbentzio bat izan daitekeela aipatzen du, ez duela ideia erabat baztertzen, esaterako, kobazuloaren egonkortasuna eta segurtasuna bermatu behar dela lehenbizi eta horretarako planoak eta egituraketa ikusi beharko lituzkeela.
 - Sasiolarekin konektatzek aukera mahaiaren gainean jartzen da. Autobus-geltokia baliatuz, ibilgailu publikoarekin lotura bermatu daiteke. Ildo horretatik, parte-hartzaileen guztien adostasuna ikusten da. Jasonek konektatzea beti haien buruetan egon dela azaltzen du, baina pixkanaka, faseka egin daitekeen proiektu honetan, 2.fase baterako utziko lukeela.
 - Mertxek Sasiolako Monastegiarekin hor bertan dagoela gogorarazten du. Gilenek erantzuten du monastegiarekin zer egin eztabaida iturri izan dela beti , baina, ez zaiola irtenbiderik eman. Monastegiaren jabegoa elizarena da konkretuki apezpikuena. Mertxe GFA , kultura departamentuan, Sasiolaren gaia mahaigaineratzen konprometitzen da. Gilenek udalerraren jabegokoa izatearen aukera ez du baztertzen, beti ere, eskaintza hori GFAk eta Udalak elkarlanean garatutako proiektu baten eskutik badator. Alkatearen joera bertan zerbait martxan jartzea delako. Sasiolarekin jarraituz, Gipuzkoan arkeologia museorik existitzen den galdetzen du Jasonek. Mertxek , arkeologia museoa egotekotan ,dibulgazio kulturala izanik helburu nagusia, pertsona kopuru handienera irizteko Donostian egon beharko lukeela erantzuten dio, berez, nitxoko turismoa da eta bisitari % txikia duela interesa horretan. Jasonek Sasiola uholdegarria dela kontuan hartu behar dela dio.

- Ingurumen Saileko norbait egon beharko litzatekeela baloratzen da.
- Horren ostean hurrengo bileretarako datak adosten dira:
 - 2. Bilera: Uztailaren 18an, 12:00etan
 - 3. Bilera: Irailaren 20an, 12:00etan
 - 4. Bilera: Azaroaren 8an, 12:00etan
 - Jende aurreko aurkezpena urria-azaroa artean

Honekin guztiarekin, bilera amaitutzat ematen da.

Eranskin gisa, bileran aurkeztutako aurkezpena aurki daiteke.

Sinadura/Aprobado por:



ERMITTIAKO PLAN ZUZENTZAILEA / PLAN DIRECTOR DE ERMITTIA

1.BILERA / 1º REUNION

SUSTATZAILEA: Debako Udala

TALDE IDAZLEA: Debegesa

DATA: 2022/06/28





AURKIBIDEA

0. Aurrekariak
1. Lan taldearen eraketa
2. Diagnostikoa
3. Helburuen identifikazioa



0. AURREKARIAK

Karst eta Gizakia:

Proyecto de musealización del Valle de la Prehistoria (Paleoymas):
Ermittiako Plan Zuzentzailearen jatorria

HAB: Historia Aurreko Bailara

Ermittiaren inguruan:

- 1. Zer egin nahi dugu?**
- 2. Nola?**



1. LAN TALDEAREN ERAKETA

Bilera hauen zergatia : *Denon artean adostutako proposamen bat garatzeko.*



Zein izango da elkarte bakoitzaren rol-a?

Norbait falta al da?





KRONOGRAMA

	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
FASEAK							
Lan taldearen eraketa, diagnostikoa eta helburuen identifikazioa							
Denon artean adostutako proposamenaren garapena		1.proposamenaren aurkezpena		2.proposamenaren aurkezpena	Proposamen definitiboaren aurkezpena		
Plan Zuzentzailearen erredakzioa							Dokumentazioaren ematea
BILERAK							
Lan taldea		18-22		19-23	24-28		
Herritarrei aurkezpena: Ondarearen Europear jardunaldiak							


Inguruaren azterketa

AZPIEGITURA OROKORRAK

- KOBAZULOEN KOKAPENA
- DEBA IBAIA
- AUTOPISTA (A-8)
- ERREPIDE SARE OROKORRA (N-634)
- PARTZELEN MUGAPENA
- CORREDOR ARNO-IZARRAITZ
- LINEA SERVIDUMBRE DE PROTECCION
- LINEA SERVIDUMBRE DE TRANSITO
- ANTIGUO VERTEDERO


KOBAZULOEN BABES EREMUAK

- Calificado como Bien Cultural con la Categoría de Monumento
- Inscrito como Bien Cultural con la Categoría de Conjunto Monumental





2. DIAGNOSTIKOA: Kobak eta babes eremuak





Paisaiaren Ekintza Plana (PAP-2017)

61 partehartzaile → hauetako 5, elkarte ezberdinen ordezkariak

Lerro estrategikoak eta helburuak: Jarduketak

1.2.2 – PRAILEAITZEKO ZABORTEGIAREN IRAGAZKETA ETA/EDO ZIGILATUA

1.2.3 – ESPEOLOGIA ZIENTIFIKOA SUSTATZEA → KARST-AREN IKERKETA

1.2.4 – ZULOEN BABESA BERMATZEKO PROGRAMA BATEN DISEINUA ETA ABIARAZTEA

2.1.1 - INTERPRETAZIO PLANAREN ERREDAKZIOA: *KARST ETA GIZAKIA*

2.1.2 – OINEZKO BIDEA BALIOAN JARTZEA ETA INTERES GUNEEN INTERPRETAZIOA

2.1.6 – APARKALEKU GUNEEN EXEKUZIOA


2.3.2 – ESPELEOLOGIA “*RECRCO EXTENSIVO*” GISA BULTZATU

3.4.3 – KANTERAREN ATZEALDEKO EREMUAREN BERRESKURAPEN ETA HOBEKUNTZA

Karst eta gizakia

Historiaurreko Bailara musealizatzeko proposamena 2020: PALEOYMAS

- Ondare kulturala eta naturala balioan jartzea, enfoke turistikoarekin
- Oinarrizko proposamen museologiko-museografikoa, aurrerapen arkitektoniko batekin, non:
 - Praileaitz eta Ermittiako lehendabiziko proposamenak
 - Plan Zuzentzailearen beharra







PUNTO DE PARTIDA (+65 m) - PUNTO DE ACCESO CUEVA (+142 m) - DENIVEL 77 m
APROXIMADAMENTE 1km DE RECORRIDO

AB - 277 m - 7,56%
BC - 209 m - 7,17 %
CD - 156 m - 6,39%
DE - 124 m - 8%
EF - 152 m - 11,8%
FG - 95 m - 4,2%

2022/06/28

	PROYECTO OBRA DE L. APT. 80/2004	MATERIA BARRIORES	CLASIFICACION PLANTAS
AUTONOMA DE PAIS VASCO	ORGANISMO CUEVA OCA NOBLA		
ESCALA 1:500	PLANO PLANO DE SITUACION. PROYECTO DE CARRILLO	FECHA 2022	HOJA 02





ESCALA DE PABELLON EXPRIMITIVO
ZONA APARCAMIENTO:

- Zona de aparcamiento - punto de información
- Español - cueva de Praxialtz
- Acceso a la subida hacia cueva de Ermitia

	DEPARTAMENTO DE CULTURA DIRECCIÓN GENERAL DE MONUMENTOS Y BARRIOS HISTÓRICOS	PROYECTO DE PLAN ZUZENTZAILEA	ESCALA: 1:500 FECHA: 08
--	---	----------------------------------	----------------------------

HAB- Historia Aurreko Bailara : Ibilbidearen exekuzio proiektua (2021-2022)

Historiaurreko
bailara
Valle de la
prehistoria

HAB



Inguruaren azterketa



Praileaitzeko harrera gunea



Bi elementuen arteko lautada



Ermittiara iristeko gaur egungo ibilbidea

Datu orokorrak:

- 75m-tako kota aldaketa
- Inklinazioa >50%

- Begetazio ezberdineko eremuak
- Autobidearen zarata- soinu akustikoa

KOBAZULOAREN BARNEALDEA

- **Interes geologikoko elementuak:** - Gipuzkoako lurpeko-sare zabalena (40km)
- Espeleotemak
- **Interes arkeologiko eta/edo paleontologikoko elementuak:** Basahuntzaren, sarrrioren, oreinaren, elur-orein eta leizeetako hartzaren arrastoak



Informazio-iturria: Paleomas

Intereseko dokumentazio gehiagorik?





BENCHMARKING – ANTZEKO BALIABIDEEKIN KONPARATZEA

- 2-3 orduko gehieneko distantziara dauden leizeak
- Lehiakide zuzenak
- Kantabria, Nafarroa, Burgos, Asturias
- Gehienak leize karstikoak dira
- Haitzuloen baliabide nagusia historiaurreko aztarnak dira, bai aurkikuntza arkeologikoak, bai pinturak edo grabatuak.
- Ia guztiek bisita gidatuak baino ez dituzte eskaintzen
- Bisitak 45 minututik 2,5 ordura arte irauten du.
- Gehienek museo edo interpretazio zentro bat dute



ERMITTIAKO PLAN ZUZENTZAILEA

- *Diagnostikorako elementu gehiago daudela uste al duzue?*





3. HELBURUEN IDENTIFIKAZIOA

HAB PRODUKTUAREN HELBURUAK

- Norentzako da produktua?

HAB ibilbidearen erabiltze berdinentzako

- Zertarako da produktua?

Ondare kulturala eta naturala balioan jartzea, aisialdia eskaintza gisa (*recreo extensivo*)



PLANAREN HELBURUAK

- HAB ibilbideari amaiera eman, non? eta hasiera?
- Praileaitzeko hurbilketaren definizioa
- Ermittiako hurbilketaren definizioa, bai igoera, baita sarrera ere: goiko aldetik (Ermittia I-II) eta beheko aldetik (Ermittia V)
- Bisitagarria
- HAB produktuaren barnean, kobazuloa osagarria bat da ala elementu nagusia?



3. EZTABAIDA GAIAK

NOLAKOA IZAN DAITEKE BISITA?

Aldez aurretik pentsatutako ideiarik ba al ditugu?

*Zelan imajinatzen dugu? Zertan zentra gaitzke **interesa** izan dezan?*

***Interbentzio mota:** irisgarria, bisitagarria?*

*Zer **eskaini dezake** kobak bere barnealdean?*

*Zer **ikusi** dezakegu kobaren barnealdean?*

*Zer **egin** dezakegu kobaren barnealdean?*

....?



GAI ZERRENDA - ORDEN DEL DIA:

- ✓ Lan taldearen definizioa
- ✓ Orain arte jasotako dokumentazioaren azterketa
- ✓ Galdetegietatik eratorritako informazioaren azalpena
- ✓ Lehen proposamenen aurkezpena
- ✓ Ikerketa gehiagoren beharra

<u>DEIALDIA/CONVOCATORIA</u>	<u>KONBOKATURIKO KIDEAK/MIEMBROS CONVOCADOS</u>	<u>ETORRIAK - ASISTE</u>	<u>EZ ETORRIAK / AUSENTE</u>
<u>DATA/FECHA:</u> 2022-07-18	1. Aitziber Cortazar (DEBEGESA – Turismo)	X	
<u>HASIERA ORDUA/HORA INICIO:</u> 12:00	2. Ane Osoro (DEBEGESA – Turismo)	X	
<u>AMAIERA/FINAL:</u> 14:45	3. Esther Zarrabeitia (DEBEGESA – Hirigintza)	X	
<u>TOKIA/LUGAR:</u> Debako Udala	4. Eider Etxegarai (DEBEGESA – Hirigintza)	X	
	5. Gilen Garcia (Debako Udala – Alkatea)	X	
	6. Jasone Galdona (Debako Udala – Turismo)	X	
	7. Saioa Zuazubiskar (Debako Udala – Arkitekta)	X	
	8. Leire Barriuso – (Geoparkea)	X	
	9. Asier Hilario – (Geoparkea)	X	
	10. Mertxe Urteaga – (Gipuzkoako Foru Aldundia)	X	
	11. Xabier Peñalver (ARANZADI)	X	
	12. Joxean Mugika (UPV)	X	

LANDUTAKO GAIEN LABURPENA/ RESUMEN DE LOS TEMAS TRATADOS:

- Bilera hasi baino lehen Xabier Peñalverri eta Joxean Mujikari aurreko bileran komentatu zena azaltzen zaie.
- Jarraian bileran erabilitako aurkezpenean jasotakoari egindako ekarpenak deskribatzen dira:
 - Estherrek Ermittia behekoaren inguruko informazio zehatzik ez daukagula aipatzen du. Honi, Mertxek Ermittia goikoa eta behekoaren barne-konexioa ezinezkoa dela gehitzen dio. Konexioa egon ezean, balio arkeologikoa duen koba Ermittia goikoa izanik ez dauka zentzurik behekoan interbentzioa planteatzea. Xabierrek, Ermittia behekoan sartzea goikoa interpretatu nahian oso arraroa izango zela dio. Leirek, Ermittia behekoak dagoeneko espeleologia esperientzia eskatzen duela dio eta goikoan produktu desberdina garatu daitekeela, ondorioz, gerturatuak ados agertzen dira beheko sarrera baztertzeke planteamenduari.

- Aparkalekuaren dimentsionaketari dagokionez, kobazulora sartuko diren perfil berriaz gain, urtero sartzen diren espeleologia taldeak ere kontuan hartuko duela mahaigaineratzen da. Plan Zuzentzaileak jasotzen du, exekuzioaren 2.fase batean emango da.
- Harrobiari dagokionez, aktibo mantentzen den bitartean Praileaitzera hurbiltzea zaila ikusten dutela azaltzen dute Xabierrek eta Mertxek. Edonola, bertaratutakoek interesgarria ikusten dute Praileaitzeko ahora hurbiltzeko aukera planteatzea. Zentzu horretan lehenbailehen harrobiko arduradunarekin, Hectorrekin, gelditzea komenigarritzat jotzen da.
- Kobazuloaren ahorraino igoera definitzerako garaian, aurkeztutako proposamenen harira naturaltasun maila handiena aurkeztu duena egokiena ikusten da. Igoera horrek bisitari mota baldintzatzen duela onartzen da.
- Interbentzioaren dimentsioa definitzeko orduan, instalazioen mailaren inguruko hausnarketa ateratzen da. Xabier Peñalverrek gunea argitasun puntu batekin (tenue) ikusten duela dio, lehen bizi zirenek ere, hala biziko zirela uste baita. Ondo iruditzen zaio “penumbra”, “semiiluntasuna”rekin jokatzeko. Kobazuloa paleolitikora heltzeko forma bezala ikusten duela dio. HAB ibilbide guztian zehar erabiltzen zituzten tresnak eta arrastoen erreplikak ikusi ondoren, kobazuloaren barnealdean lehengo bizitzaren eszenatokia topa dezakegula, “sala de exposiciones” baten antzekoa. “Chaman”aren tronuaren inguruan ez duela bertan ikusten dio, bere funtzioa Praileaitzen dagoela, ez dutela paper berdina jarraitzen... Mertxek ideia/adibide gisa, lehengo gizakiaren tailerra imitatu dezakeen koba izan daitekeela komentatzen du, non erramintak eta erreplikak ikus daitezkeen. Joxeanek arkeologoaren lana balioan jartzeko, metodologiaren azalpena egiteko 2x2m-inguruko eremua utzi daitekeela aipatzen du. Guztiak ados daude inbertsio eta interbentzioaren arteko oreka bilatzeko xedearekin.
- Diskurtsoa eratzeko planteatzen diren aukerak azaltzen dira, zentzu horretan, diskurtsoaren sorrerarako ikerketa arkeologikoaren beharra azaltzen du Joxean Mujikak, bai sarrerako gunekoa, baita barne esparrukoa ere. Hala ere, ez dakite ziur perfilatzeko zenbat denbora beharko duten eta sarrera garbitu arte ez dakitela zer aurkituko duten. Bi indusketa kanpainen beharra azaltzen dute (urte batekin nahikoa). Gilenek aurrekontuen aurreikuspena egin ahal izateko Aranzadiri aurrekontua eskatzen dio, Mertxek DFGen diru-laguntzak eskatu daitezkeela azpimarratzen du (20.000 €ra arte), beraz, 2023ko urtarrilean lanean hasi daitezkeela. Era berean, Joxeanek gordailuan dauden aztarnen egoeraren inguruko arduraz azaleratzen du.
- Estherrek Plan zuzentzaileak bere bidea jarraituko duela azpimarratzen du eta 2022 urte bukaera baino lehen definituta egotea espero da.
- Diskurtsoaren oinarria Paleoymasen proposamena dela kontuan hartuta, horren inguruko ekarpenak egitea eskatzen zaio Xabierri eta Joxeani. Dokumentua astean zehar bidaliko zaie.
- Bisitari dagokionez, ezinbestekoa ikusten da gidariaren eta behin-betiko euskarrien arteko oreka bat bilatzea. Taldeen tamainaren inguruan talde txikiak izango dira eta 10 laguneko taldera mugatzea aurreikusten da.
- Praileaitzen izandako zabortearen lurren berreskurapenari dagokionez, Gilenek erabaki bat hartu behar duela mahaiaren gainean jartzen du eta horretarako erabaki hori hartzeko irizpideak behar dituela dio.
- Amaitzeko, “hay que divulgar para valorar” dio Mertxek. Ezinbestekoa ikusten duela Dibulgazio Programa zehaztea. Gilenek herritarrekin lan egitea beharrezkoa ikusten duela aipatzen du.
- Horren ostean hurrengo bilerako data gogorarazten da: Irailaren 20an 12:00etan, leku berean.

Honekin guztiarekin, bilera amaituzat ematen da.

Eranskin gisa, bilera honetan aurkeztutako aurkezpena gehitzen da.

Sinadura/Aprobado por:



ERMITTIAKO PLAN ZUZENTZAILEA / PLAN DIRECTOR DE ERMITTIA

2.BILERA / 2º REUNION

SUSTATZAILEA: Debako Udala

TALDE IDAZLEA: Debegesa

DATA: 2022/07/18





AURKIBIDEA


0. Lan taldearen definizioa
1. Bildutako dokumentazioa
2. Galdetegietatik eskuratutako emaitzak
3. Lehen proposamenak
4. Ikerketa gehiagoren beharra

0. LAN TALDEAREN DEFINIZIOA

Lan taldea




Kontsulta taldea



1. BILDUTAKO DOKUMENTAZIOA

- **Informe de reconocimiento y espeleometria de Ermitia**
Idazlea: Felix Ugarte elkartea
 - Oztopoak kentzeko lanak eta beste topografia batzuk egin behar dira, Ermitia eta Ermitia bekoa lotzeko elkargunearen kokapen espaziala identifikatzeko.
 - Hondoratzearen ondorioz ikus daitezkeen sedimentuen potentzialaren ondoriozko interes arkeologiko garrantzitsua
 - Ermitia Bekoaren konexioarekin interes geologikoa(10km galeria) Aixa-Ibarrengo-Ermitia Bekoa(40 km) lurpeko sistemaren parte izatera pasatuz
- **Ermitiako kuadrkulazioa**



2. GALDETEGIETATIK ESKURATUTAKO EMAITZAK

- ✓ **Sasiolarekin (autobus-linearekin) harremana bermatzea** egokia ikusi da
- ✓ **HAB-aren parte + bakarrik** funtziona dezakeen errekurtsio bat izango da
- ✓ Interbentzio handirik **ez**
- ✓ **Gidaria** izango da aktibo nagusia → diskurtsoa eta gidariaren errekurtsioak ezinbestekoak
- ✓ Bisitak: Talde **txikiak**
- ✓ **Espektatibak dimentsionatu** behar dira → Jarduketa eta hasierako inbertsioa aintzat hartu beharreko alorrak dira
- ✓ **Arkeologikoki garrantzi handikoa, baina geologikoki ez**
- Ikusten diren **zailtasunak**:
 - X Kobaren ahorraino sarbidea
 - X Kobaren sarreraraino ibilgailurik sartzearen ezinezkoa

2. LEHEN PROPOSAMENAK

Historiaurreko
bailara
Valle de la
prehistoria

HAB



PRAILEAITZ – LAUTADA – APARKALEKUA

AZPIEGITURA OROKORRAK

- KOBAZULOEN KOKAPENA
- DEBA IBAIA
- AUTOPISTA (A-8)
- ERREPIDE SARE OROKORRA (N-634)
- PARTZELEN MUGAPENA
- CORREDOR ARNO-IZARRAITZ
- LINEA SERVIDUMBRE DE PROTECCION
- LINEA SERVIDUMBRE DE TRANSITO
- ANTIGUO VEREDERO

KOBAZULOEN BARRIO ERREKINAK

- Garbituak como Bien Cultural con la Categoría de Monumento
- Iratzeak como Bien Cultural con la Categoría de Conjunto Monumental



PRAILEAITZ – LAUTADA

- Zurezko pasarela jarraia lautadatik Praileaitzeraino, baranda batekin segurtasuna bermatuz (inklinazio handiko guneen existentzia)
- Aurretiko lautadan interpretazio gunea (kobek eskaintzen digutenaren arabera egituratua)
- HABaren irizpide berdinak jarraitzea, bateratasun bat lortzeko



Praileaitz-lautada
(2022-06-03)



Bidearen estutasuna eta arrisku puntua
(2022-06-03)



Praileaitzeko harrera gunea
(2022-06-03)

HARROBI ATZEKALDEKO GUNEA: APARKALEKUA

- Aparkalekua proposamenarekiko dimentsionatua egongo da



ERMITTIAKO KOBAZULORAINO SARBIDEA

2 alternatiba baloratzen:

- **HAB ibilbidetik: Ermittia Bekoa:** Dokumentazio falta

Ingurumen-balorazioa:

- Saguzar-ren ikerketa faunistiko baten beharra.
- Ingurumen irizpideen araberako alternatiben ikerketa


Arno-Izarraitz korridorea

Servidumbre de Costas-en barne

- **Kobazulo-ahoraino igoera**



ERMITIAKO KOBAZULORAINO IBILBIDEA: Kota aldaketa: 76m (\approx 23 solairu)



ERMITTIAKO KOBAZULORAINO IBILBIDEA: Kota aldaketa: 76m (\approx 23 solairu)

Gaur egungo ahokoa: Alternatiba ezberdinak:

- Egurrezko pasarela jarraia goraino geraleku batzuekin, interpretazio panelekin
- Gaur egungo ibilbidearen hobekuntza, trazatu berriarekin (mendi ibilbidea): egurrezko pasareladun tramoekin eta interpretazio panelak dituzten geraleku batzuekin, beste tramo batzuk naturalak mantenduz edo trabiesa batzuekin planteatuz
- Instalazio mekanikoak



KOBAZULOAREN GERTURATZEA : 1. Proposamena




- 10 pertsonako taldeak
- Bi burdin langa (cancela): Bata kanpoko egurrezko geraleku txiki batean eta bestea, barnekoa, gaur egungo itxitura atzeratuz.

Sortzen den aterpe horretan, garaiko eguneroko bizitzaren eszena

Ilunpean sartzea → historiaurreko sentsazio bera mantenduz

ERMITTIAKO KOBAZULOAREN BARNEALDEA: 1. proposamena

Iluntasunean frontalekin sartzea eta argiarekin jolastea diskurtsoaren arabera barnean **gune ezberdinak deskubritzen:**




ERMITTIAKO KOBAZULOAREN BARNEALDEA:

II- A. Gutxieneko instalakuntza , *bisita espeleologiko bati parekatuz*

- Eremuak:
 - Sutondoan arrastoak
 - Oserak
 - Chaman-aren tronoa
 - Kobazuloaren garapen geologikoa, eta abar
- Lurperatutako salan: **Arkeologia lana balioan jartzea.**
Estatigrafien ikerketa.



Momentu puntualetan lanean aurki daitezke



ABANTAILAK:



- Mantenimendu gutxiago bat
- Kostu apala

DESABANTAILAK:

- Publiko objektibo txikiago bat

ERMITTIAKO KOBAZULOAREN BARNEALDEA:

- **Luzera:** 82m (plataformak)
- **Kota aldaketa :** +142m tik – +129,30m-ra (**12,7m**)
- **Malda:** % 15,48.



ERMITIAKO KOBAZULOAREN BARNEALDEA:

II- B. Instalakuntza guztiekin

- Arrikruzten ezarri ziren instalakuntzak aipatzen dira (adibide gisa):
 - **Argiztapena eta soinua:** Argiztapen eszenikoa eta soinu-aparatuak, sistema informatiko batez kontrolatuak. Ibilbidearen argiztapena. Larrialdietako argiztapena.
 - Komunikazio **telefonikoa** (kanpo-barne konexioa)
 - Argiztapen **sorgailuak**, bateriadunak
